

editoriala

Eskozia, aurrera begira

Beren erakundeak eta are subiranotasuna berreskuratzearen alde aurreratu dute eskoziarrek botoa. Nazionalistek berek espero zuten baino bortitzago esan dute baietz eskoziarrek. Eskoziar kontserbadoreak berak, («ezetzaren» alde ziren hauek), Erresuma Batuaren ahalgabetasunaren duela kezkatuak badaude ere, gogoz kontra bada ere poztu egin dira, Eskoziaren aldeko botoa delako.

Badira 300 urte ingelesen Eskozia subiranotasunik gabe utzi zutela. Hirurehun urte horietan alabaina bizi-bizirik iraun du sentimendu nazionalak. Azkeneko urteotan sentimendu hori zoritu egin da eta antolatu: Parlamentua berreskuratu da, baita kompetentzia batzuk ere. «Lehen pausoa» da, azpimarratu du Eskoziar Alderdi Nazionalistak. Ez dio honek hori eta horrenbestez bere betiko helburuari uko egiten, independentziari alegia.

Baina, gainera, referendum eskoziarrak lortu duen emaitza nasaia oso momentu kritikoa etorri da Koroa eta politika britaniarrentzat. «Erresuma Batuaren» sinbolo den Koroa momentu txarrean da, herritarrek kuestionatu egin baitute itxuraz bederen; bestalde, garai batez britaniarrek irlandarrei subiranotasuna kendu zitelako sortu den gatazka konpontzeko asmotan elkarrizketak hasteko puntuan dira Ipar Irlandan. XX. mende hondarrean estatuen kaltetan baina nazioen alde ari den indar zentrifugari ezin zaio itzuri Britainia Handia. Jakina, estatuak bestelako joeren alde agertzen dira.

Fenomeno hau Europar nonahi sumatzen da, batzutan besteetan baino gogorrago. Estatuaren erantzuna ere halatsukoa da. «Herrialdeei» autonomi maila ezagutzen zaie, ez, ordea, erabatekoa: ez dira horien eskubiak osorik ezagutzen. Dena den, Eskoziaren «lehen pausoa» pauso bat gehiago da Europako herrietan, pauso bat gehiago autodeterminazioarentzat.

hoy escribe

Loarre

Betidanik neukan Loarreko gaztelu zaharra ezagutzeko gogoia. Ez zen hau, egia esan, Añuñemendi katea miresgarrian ikuskatu nahi nuen leku bakarra. Asan monastegi zaharra bertatik ikusteko gogo bizia ere izan bainen aspaldiko; San Victorian famatua, alegia, gaur egun erabat zaharturik, Sobrarbe garaian.


Obarra-raino ere joan nintzen halako batez, barne bulkada berak hartaraturik, Ribagorzan. Eta Loarre falta nuen, Oskako mendialdean.

Eta aurtengo bakantzak baliaituz, haraino hurbildu naiz egun hauetan. Harkaitz gorriaren eraikia, militarri eraso ezina, hamar dorre borobilez eta harresi luze batez inguratutik, oso ongi gorderik, XI. mendeko lekuko bikain gisa agertzen zaigu.

Nafarroako Antso Nagusiak eraiki zuten mendialdearen ertzean, Uxue egon daitekeen modura; eta antzinako gaztelu zaharrago baten hondakinen gainean altxatua. Urrunean, Hego-Ekialde alderantz begiraturik, Huesca hiria somatzen da: 25 km. zuzenean.

Gazteluaren aurrealdean, Hego-Mendebalde aldera begiraturik, Aierbe herria ageri da, 4 bat kilometrotara (Irigoien, Coromines, Koldo Mitxelena berak, euskal toponimotzat hartua: «ai(h)er, inclinación, pendiente», Ap. V., 17). Aita Joxe Migelen amari, bestalde, Maria Aierbe zerituz, irakurleak badakikeenez.

Aurreraxeago Biscarrués, hormetako protagonista bihurtua: «No al pantano de Biscarrués» irakur daiteke behin eta berriz.



Hegoalderaxeago, somatu besterik ez da egiten Artasonako Gaztelua.

Ekialderantz, azkenik, Arascués herria (Izabako mintzairaren lekuko bikaina izan zen Pastora Anauren bizgarren deitura, Araskues zen preseski). Baita Ubieta, Azpe, eta Nasarre. Eta menditortorretan, berriz, Xirrola-tik harat, Jabierre eta Belarre mendi-kateak.

Benetan gehiegi euskal beharria haridurazko kimiko batek ez kitzikatuko. Nahiz Zarrakatzelu eta Zangoza 70 km. tara egon.

Guztiz harrigarria ez da, izan. Behin eta berriz gogoratua izan denez, Huescako azokan «basconez»-ez mintzatea debekatu zuten udal-ordenantza 1349koa baita. Urrunsko! Hori bai.

Antso Nagusiaren heriotzaren ondoren Aragoiko Konterrian geratu zen agintari Ramiro oinordekoa... seme borta zen, bastarta. Arazo larria baita, oso, errege kastakoen artean, ongi dakigunez.

Arabiarren okupazio luzeak ere, hiru mendez luzatuta, bere ondorio larriak izan zituen demografiaren aldetik. Eta ondoko mendeetako liskar etengabeek herri txikiak biztanleak izutu, eta hustu egin ziren Añuñemendiko eskualde osoak.

Baina Antso Nagusiak ezagutu zuten nafar Aragoi hura, 4.000 kilometro karraitutako gehienez, euskalduna zen; eta, horrekin batera, «una tierra de pastores y de pequeños labradores», J.M. Lacarraren hitzez esateko. Ezer gutxi amankomunik jatorrizko Aragoi haren zabalerak eta izaerak berak gaurko Aragoi zabal, lehor eta ofizialarekin: 47.669 kilometro.

Aragoi Garai zaharra hustu egin zen (Gaztela ez zen hustu, bidenabar esateko).

Eta gaur egun Aierbe inguru hauetan, Ekialderago Obarra bezala, euskal bitxikeria huts eta ulertezin agertzen zaizkigu.

Hots, guztiz besterik gertatzen da Huesca probintziarekin Ekialdean. Hango aztarnak («aztarnak» ote?) katalanak baitira.

Loarre bisitatu nuen egunean, hain zuzen, «l'Escola d'Estiu à la Franja» izeneko Biltzarrea ari zen ospatzen. Katalanez, jakina... Huesca Ekialdeko eskolatan 30 irakasle ari dira katalanez irakasten, Generalitat katalanarekin harreman estutan.

Are bitxiago: «Patrimonio y Cultura de Aragón» delakoaren sailburua... Domingo Buesa izenokoa da...

Guk hemen, aldiz, borroka latza egin behar dugu Bidaunaren euskal eskola bat irekitzeko...; eta eskara desagertzea bera, espainolista guztien ametsa, normala, are osasungarria ere, izango litzatekeela dioten «unibertsiario» progreak ez dira oraindik desagertu, ezta hurrik eman ere.

Zer nahi duzue? Loarreko erre pensakor utzi nau.

lópez & pérez

